

## **JUAN GARMENDIA LARRAÑAGA. In memoriam**

lazko urtarrilaren 8an euskaltzale jakintsu bat hil zen Tolosan. Euskaltzale eta jakintsu Tolosan aurretik ere izan dira banaka batzuk: Ixaka Lopez Mendizabal, Antonio Labayen, adibidez. Baina bi nolakotasun horiei gehitzen badizkiet eskuzabal, bihotz on, adiskideen adiskide, hiztun neurtu eta jori, ikertzaile aspergaitz, idazle trebe, irakurle nekaezin, txantxa (eta txantxo) zale, eszeptiko samarra, isekari eta batzuetan ironiko samarra, erromantikoa ... eta abar eta abar, garbi dago Juan Garmendia Larrañaga tolosar peto-petoaz ari naizela.

Zorte ikaragarria izan nuen Juanekin topo egitean. Gutxitan ezagutu dut hain ondo beste inoren bizitzaz Juanen kasuan egin nuen bezala. Hori posible izan zen komunikazio jario aberats eta jarraikia ireki zelako bion artean. Bere eskuzabaltasunaren onuraduna izan nintzen. Hainbat eta hainbat gauza erakutsi zidan eta ezingo dut sekula berarekiko nire zorra kitatu. Hogei urtez bizitzako katedratik ikasgai magistralak eskaini zizkidan, euskal kultura bere orokortasunean ikuspegi desberdin batetik neurtzen irakatsiz.

Juanen nortasun tinko eta erraldoiak ni bezala beste lagun asko ere inpregnatu zuen. Juan hiritarra, Juan etnologoa, Juan dibulgatzailea, Juan euskalduna, Juan euskaltzalea. Nortasun alderdi desberdinek Juan bakarra osatzen zuten eta bakoitza argi bereziz nabarmentzen zen osotasunean, Juanek jakin baitzekien bereizten arlo diferenteetako esparrua, bakoitzean ari zela. Eta euskal gizartera irradiatu zuen bere jakintza, bere maisutasuna. Maisua izan zelako. Ikasgelarik gabeko maisua, hori bai, nahiago izan baitzuen haize libreko ikastola hormen arteko unibertsitate enkortsetatua baino.

Juani ez zitzaizkion ortodoxiak interesatzen eta zurrunkeriatik ihes egiten zuen, "ismo" kamustaile eta antzuetan ez erortzeko. Ezaguna egin zuen bere *"ez naiz inoren artzain ezta ardi ere izan"* Ideia horrek gidatzen zuen bere lana. Eta horregatik heldu zen hain urruti. Euskal kulturako inork gutxik lortu duten maila erdietsi zuen bere obrari buruz. Sentimenduz eta jakitez biribildutako lan mardul eta aberatsa utzi zigun.

Juan Garmendia Larrañaga 1926ko uztailaren 12an jaio zen. Gurasoak Ignazio eta Antonia izan ziren. Bikotearen seme bakarra gertatu zen, aurretik jaiotako bi anai-arreba txikitxo hil baitziren. Herriko Jesusen Alaben ikastetxean, lehenik, eta gero Jesusen Bihotzaren Anaienean ikasi zituen oinarrizko gaiak eta hamahiru urterekin Oronozeko maristengana bidali zuten. Urtebete bat bakarrik iraun zuen ikastetxe hartan, bertako diziplinari gehiegizkoa baitzerizkion.

Hortxe dugu Juanen aurreneko nortasun-zehazkizun garbia. Gaztetatik, beraz, aurre egin zion bizitzari bere berezko postulatuetatik. Askatasuna maite zuen, era guztietako lotura zurrunei muzin eginez.

Merkataritza ikasketak egin zituen Donostian eta lanean hasi zen familiaren negozioan. Eta Tolosako denda haren ingurura biltzen ziren pertsona eta materialetan oinarrituta ekin zion Juanek bere karrera paregabeari. Sendi jatorriaren deiari adituz, Txindokiko magaletara jo zuen, bere heriotzara arte egingo zuen legez, eta hastapenetako argizariak, zurezko lanabesak, baserritarrak eta iraganerako lotura ahalbidetzen zioten guztia mundu zoragarria bihurtu zitzaion poliki-poliki. Eta Juanen irudia erraldoitzen joan zitzaigun, oinarri sendoko lanari esker.

Ikerketa lan zabal eta sakonak bata bestearen atzean etorri ziren. Eta zientziaren soloko urrats sendoak lagun, goi ikasketetara hurbildu zen, eta 1984an doktoregoa lortu zuen Euskal Herriko Unibertsitatean, bere “Euskal lexiko etnografikoa”-rekin. “Bikain cum laude” atera zuen. Epai mahaiburua Koldo Mitxelena zen eta tesiaren zuzendaria, berriz, Julio Caro Baroja. Ez zituen maisu kaskarrak izan, ez alajaina! Azkenaren hitzak dira ondokoak:

*“... Hizkuntza egoera larri baten ez ezik, mendez mende metatu den tradizioaren, behin betiko desagertzeko zorian edo jada guztiz desagertu diren usadio eta ohituren azken ordezkariengandik jaso du lexikoa. Egoera agoniko hori hautemateko halako sentiberatasuna erakusteagatik Juan Garmendia Larrañaga nire aspaldiko adiskide maiteari, lehengoz gainera, meritu hau eman behar zaio”*

Baina ez dezagun baieztapen horrekin ikuspegia okertu. Juan Garmendia Larrañagak ez zuen euskara agonikoa nahi. Bizia, baizik. Dakusagun:

Ramos Azkarate tolosarraren esaera bere eginez, Juanek Madrilen emandako hitzaldi batean zeruan jai egunetan euskaraz egiten dela adierazi zuen. “*Ramos Azkaratek hori baieztatzeke bere arrazoiak izango zituen ezta?*” gaineratuz.

Behin galdetu nion zein euskara mota erabiliko den zeruan eta erantzun zidan horrek bost axola ziola, euskara baldin bazan. Eta ohiko bere diplomaziaren adibidea eman zidan ondoko hitzekin:

*“On Manuel Lekuona adiskide handia neukan eta nik banekien berak euskara batuari buruz zeukan jarrera eta nirea ez zetozeela bat. Baina bere sentimenduetan ez mintzearren isilik geratzen nintzen eztabaida sortzean. Gabriel Arestirekin ere gauza bera gertatu zitzaidan, nire etxera etorri zen arratsalde batean. Nire ideiekin bat ez zetozen argudioak erabili zituen euskara batuaren alde. Baina Aresti nire etxean zegoen, nire gonbidatua zen, eta ezin niezaiokeen kontra egin”*

Euskara bizia nahi zuen, kalean ikusi gura zuen, ume eta nagusien arteko kohesioa ahalbidetuz.

*“Euskarak kalea irabazi behar du, eta elkarteak, eta lantegiak ... Batzuetan esaten zaigu txikiegia dela horretarako. Txikiegia? Noiztik neurtzen da indarra*

*tamainarengatik? Ez al da guztion baitan zentzu apurrik piztuko? Inork uste al du, benetan, euskarak kalte egin diezaiokeela espainierari? Eta frantsesari? Kalte? Gezurtiak desenmaskaratu behar ditugu!”*

Euskararen aldeko Juanen lanarengatik Euskaltzaindiak saritu egin zuen (ala Juanek saritu zuen Euskaltzaindia?) euskaltzain urgazle izendatuz, 1975eko ekainaren 27an. Geroago, 2002ko azaroaren 29an Ohorezko euskaltzain egin zuen Akademiak.

On Jose Migel Barandiaranek idatzi zuen behin Juan Garmendia Larrañagak ez zuela aski izakien edo gauzen azaleko ikuspegiarekin. Bakoitzaren egintzak eta bere inguruko harremanak zorrotz aurkezten zituela azpimarratu zuen idazki hartan.

Nik ere antzerako modu batekin amaitu behar dut nire gaurko jarduna. Juan Garmendia Larrañaga adiskidearen gain aritu naiz, azalkiro, In memoriam batek behar duen eran. Juan Garmendia Larrañagaren egintza eta lorpenez jabetzeko, ordea, bere obran egin behar dugu murgil. Eta, zinez, gomendagarria da ariketa.

JOSEMARI VELEZ DE MENDIZABAL